



«Gizakiaren duintasunarekin bat dator guztion etxea zaintzea»

Espainiako Gotzainen Batzarreko Ekologia Integralaren Sailak egindako Hausnarketa Abendu Denborarako.

Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna

2024ko abenduaren 10a

Giza duintasuna eta giza eskubideak

Bere izatea dela eta, pertsona bakoitzak *duintasun amaigabea* du, eta duintasun hori ezin zaio kendu egoera edo testuingurua edozein dela ere.

Gizaki oro errespetu osoz eta maitasunez tratatua eta onartua izan behar da, hain zuzen ere arrazoiaren bidez bakarrik ezagutu daitekeen bere duintasun besterenezinagatik. Abendu aldean, gure burua prestatzen ari gara Jainkoaren *Logosen* misterioan sakontzeko: gauza guztiak sortu zuen bere Hitza, gutako bat egin zena eta horrek giza komunitateko kide izateaz sortzen duen duintasun hori berresten du.

1948ko abenduaren 10ean, duela 76 urte, Nazio Batuen Batzar Nagusiak *Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala* autoritate sekularrez jaso zuen. Aldarrikapen honetan Gizakiaren berezko duintasuna aitortzen dira eta hortik sortzen diren oinarrizko giza eskubideak.

Elizak betidanik ospatu eta lagundu du nazio guztien babes aktiboa suposatzen duen giza garapena. Gizakiaren duintasuna (gizona eta emakumea, Jainkoak bere irudira sortuak eta Jesukristok salbatuak) da honako eskubideen, besteak beste, oinarria : berdintasuna, diskriminaziorik eza, askatasuna, justizia, bakea, segurtasuna, pribatutasuna, parte-hartze politikoa, hezkuntza, lana, osasuna, bizi-baldintza duinak, elkartasuna, familia eta guztion onerako erantzukizuna.

Eskubide hauek «jarraitu beharreko bide bat dira, eta urrats asko egin dira, baina asko falta dira oraindik. Eta, batzuetan, zoritxarrez, atzera egiten du» ¹.

Giza duintasuna eta ingurunearen zaintza

Giza eskubideen errespetuak behar du oinarrizko ingurumen baldintzak eta gizakiaren garapen integrala, banakakoa zein taldekoa, posible egiten dituzten egoeren babesa eta promozioa. Gizarte eta ingurumen oinarrizko baldintza hauek guztion onura eraikitzen dute eta honen erdian dago gizakiaren duintasunaren babesa eta zaintza.

Era berean, ikuspegi horretatik, «gizakiaren duintasunari dagokio ingurunearen zaintza, kontutan hartuta, batez be, existentzia bera babesten duen giza ekologia» (*Dignitas infinita*, 28).

¹ Francisco Aita Santua, Ángelus, Igandea 2023 Abenduak 10.

<https://www.vatican.va/content/francesco/es/angelus/2023/documents/20231210-angelus.html>



Ingurune naturala, etxe komuna zaintzea, ez da besterik Sortzaileak Genesiaren metaforan agindutakoa praktikan jartzea baino, hau da, Edeneko lorategian gizakia jarri ha “zaintzeko eta lantzeko”(Gn. 2, 15).

Beraz, nahita edo nahi gabe guztion ongiaren aurka egiten duen ekintza orok giza duintasuna gutxietsiz, eta «dena lotuta dagoen» ekologia integralaren aurkako bidegabekeria da, ulertuz «gure bizitza eta naturarekin ditugun harremanak eta anaitasuna, justizia eta besteekiko leialtasuna banaezinak direla » (Laudato Si ", 70).

Giza duintasuna eta klima

Hala, adibidez, elizak dio «edateko ura izatea giza eskubide oinarritzakoa, funtsezkoa eta unibertsala da, pertsonen biziraupena baldintzatzen duelako, eta beraz, gainerako giza eskubideak baliatzeko baldintza da» (Laudato Si ", 30).

Zentzu berean eta giza garapen integralerako dituen inplikazio ugariengatik, gaur egun, «klima guztion ondasuna da, guztiena eta guztiontzat. Maila globalean, giza bizitzarako funtsezko baldintza askorekin lotutako sistema konplexua da» (Laudato Si ", 23).

“Klima aldaketa pertsonen bizitzaren duintasunarekin lotuta dagoen giza arazo globala da” eta ikuspuntu ekologikoa bera gainditzen du, gure elkar zainketa eta gure luraren zainketa guztiz lotuta dagoelako. Klima aldaketa gizarteak eta giza komunitateak mundu maila aurre egin behar duen erronkarik funtsezkoetariko bat da” (Laudate Deum, 3). Beraz betebeharrak morala da gizakiak sortutako arazo honen ondorio negatiboak saihesteko ahal diren ahalegin guztiak egitea

Francisco aita santuak, gaiari buruzko ezagutza zientifiko onenetan oinarrituta, adierazte du «klima-aldaketaren inpaktuak gero eta kalte handiagoa egingo diela pertsona askoren bizitzari eta familiei. Osasunean, lanean, baliabideak eskuratzean, etxebizitzan, behartutako migrazioetan, etab. izango ditu ondorioak” (Laudate Deum, 2). Gaur egun, ondorioak pairatzen ari gara lurralde askotan, baita gure inguruetan non kalteberan dagoen populazioa larriki kaltetuta dago. Ezin dugu besoak gurutzatuta uztea.

Gatazkaren erdian erregai fosilak daude (ikatz, petrolioa eta gasa), eta *pixkanaka-pixkanaka eta atzerapenik* gabe ordeztu behar dira (cf. Laudato Si ", 165). Hala ere, momentuz gutxi aurreratu da NBEren klimaren gailurretan, ia bederatzi urte Parisko Akordioaren ondoren, non herrialde guztiek onartu zituzten arazoaren larritasuna. Funtsezkoa da berehala lortzea *trantsizio ekologikoa* deritzona, eta “lau arlotan oinarritu egitea: energia-eraginkortasuna, iturri berriztagarriak, erregai fosilak kentzea eta hauen menpe gutxiago bizitzeko bizi moduetan hezkuntza”².

Trantsizio energetikoak izaera loteslea izan behar du,

² Francisco Aita Santua, “Discurso a la Conferencia de las Partes en la Convención Marco de las Naciones Unidas sobre el Cambio Climático (COP 28)”.

<https://www.vatican.va/content/francesco/es/speeches/2023/december/documents/20231202-dubai-cop28.html>



Parisko Akordioa indartzeko eta honela karbono dioxidoaren isuriak murrizteko (*cf. Laudate Deum, 59*). Ildo horretan, denok lagun dezakegu gure Estatuei eskatuz Erregai Fosilak Ez Ugaltzeko Ituna garatu eta ezarri dezaten, adibidez, NBE sisteman indarrean dauden hitzarmenen ereduak jarraituz; hau bai izango litzatekela tresna aipagarria energia modu berrietarantz egiteko.

Trantsizio ekologikorako ekimenak

Gure aldetik, fede-komunitateak garen aldetik, desinbertsiotarako ekimen globalarekin bat ahal dugu egin eta ehun erakunde katoliko baino gehiagorekin bat egitea (Elizbarrutiak, kongregazioak, unibertsitateak eta abar). Horiek konpromisoa hartu dute petrolio-konpaitetan jarritako aurrezkiak atera eta energia-garbiak finantziatu, Giza Zientzien Akademia Pontifikoak proposatzen duen moduan, *Mensurman Bona, fedearekin koherentzia duten neurriak inbertsore katolikoentzat* (2022).

Hala ere, energia fosilaren ordez energia berriztagarria erabiltzea ez da nahikoa justizia egiteko. Derrigorrezkoa da onartzea energia erabat garbirik ez dagoela eta gaur egun energia berriztagarriak biltegitatzeko behar diren mineral arraroak estraktibismo-modu berri bat, gehiegitan eskubideak errespetatzen ez dituen lurzoruak, ur-ibilguak eta airea kutsatzen dituela, eta nahitaezko lekualdatzeak tokiko komunitateetan. Min handiagoa ahulენტzat. Egoera horrek zuzenean eraginda ikusten diren gur neba-arrebek, Espainiako Gotzainen Batzarrean eman zuten lekukotza aurreko Irailean, Ekologia Integralaren aldeko III Karabana Latinoamerikarraren barnean.

Horregatik, zalantzarik gabe, asko egin dezakegu bihurketa ekologikoaren alde beharrezkoa den trantsizio ekologikoari laguntzeko, gehiegi kontsumitzeari eta pertsonen deskarteari gehiegi lotuta dagoen gure bizimoduaren berrikuspen sakon baten bidez. Ebanjelioan oinarritutako bizimodua hartzen eta askotan “gutxiago gehiago da” fede-konbikzioarekin bat eginik. (*Laudato Si'*, 215).

Badakigu «kontsumitzeko aukeren pilaketa etengabeak bihotza eta une bakoitza baloratzea eragozten duela» (*Laudato Si'*, 215).

Benedikto XVI. Erakusketen arabera, gure energia- eta kontsumo-aztarna murriztu behar dugu, beste batzuk hazi ahal izateko (*cf. Laudato Si'*, 193). Gauza sinpleetan poza aurkitzen ikastea eta lurraren ondasunen erabileran oreka-zentzua izatea urrats handia da etxe komuna zaintzeko gure giza duintasunean.

Itxaropenaren Andra Mariari, Jaunaren eta gizonen-emakumeen Amari, guregana datorrena, gure irrika sakonenak mundu osasuntsuago eta denok bizitzeko moduko Lurraren alde.